

**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

**2016ko APIRILAREN 7an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2016ko apirilaren 7an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

**ZINEGOTZIAK:** Gotzon Jauregi Sarasola  
Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre  
Ander Leon Nanclares  
Angel Serrano Martinez  
Aritz Sarria Saraqueta


Bere ezin etorria azaltzen du: Felix Joaquin Asensio Robles

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarretako aktak onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de las siguientes actas Plenarias:**
  - **2016ko martxoaren 3an egindako ohiko bilkura./Sesión ordinaria de fecha 3 de marzo de 2016.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. 2015eko aurrekontuaren likidazioaren berri ematea, hala bada./Dación de cuenta de la liquidación correspondiente al ejercicio 2015.**
- 4. Tolosaldeko Atariari 2016 urteari dagokion diru-laguntza burutzea, hala bada./ Ayuda económica a Tolosaldeko Atariari correspondiente al ejercicio 2016.**
- 5. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 2016 urteari dagokion 1. Eta 2. Hiruhileko ekarpena burutzea, hala bada./ Aportación económica correspondiente al 1. Y 2. Trimestre del ejercicio 2016 a Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari.**
- 6. Larraulgo Udal langileen opor egutegi onespena, hala bada./ Aprobación de los calendarios de vacaciones de los trabajadores del Ayuntamiento de Larraul.**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

7. Larraulgo Larrunbide onuzkoa (Labakane) baserriaren teilatua berritzeko obra baimena eskaera, hala bada./ Solicitud de licencia de obras para la rehabilitación del tejado del Caserío Larrunbide Onuzkoa (Labakane) de Larraul.
8. Lankidetzaren hitzarmena, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernanzako eta Gizartearekiko komunikazioko departamentuaren eta Larraulgo Udalaren artekoa, udal erroldaren datuak egiaztatze./ Convenio de colaboración en materia de comprobación de datos del padrón municipal entre el departamento de gobernanza y comunicación con la sociedad de la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Larraul.
9. Olaederra Kiroldegia erabiltzeko Larraul, Zizurkil eta Villabonako udalen arteko Lankidetzaren hitzarmenaren onespina, hala bada./ Aprobación del Convenio entre los Ayuntamientos de Larraul, Zizurkil y Villabona para la utilización del Polideportivo Olaederra.
10. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.
11. Beste batzuk/Otros.
12. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.  
12.1. "Tolosaldea tabako-kerik eta zigarro-kerik gabe" programari atxikimendua./ Adhesión al programa "Tolosaldea tabako-kerik eta zigarro-kerik gabe"

.../...

### **LEHENENGO PUNTUA**

#### **ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.**

- ▣ 2016 urteko martxoaren 3ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

### **BIGARREN PUNTUA**


#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate andreak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

06/2016 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 10ekoa, Larraulgo Udalaren 2015eko aurrekontuaren likidazioa onartzea, ebazten duena.

07/2016 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 11koa, M.A.G. eta J.A.A. udal langileen kontratu aldaketak onestea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### HIRUGARREN PUNTUA

### **2015EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA, HALA BADA**

Idazkari-kontuhartzaileak 2016/06 Alkate Dekretuaren berri ematen du, non 2015 ekitaldiko udal aurrekontuaren likidazioa onesten den. Batzarkideak jakinaren gainean gelditzen direlarik.


### **2016/06 ALKATE DEKRETUA**

Udal honen 2015eko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

#### **EBATZI DUT**

**Lehena.-** Udal honen 2015eko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2015-12-31n:		94.835,08
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2015-12-31n:		6.912,97
Aurrekontuko zordunak :	5.981,41	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	931,56	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2015-12-31n:		31.695,18
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	17.680,89	
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak:	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	14.014,29	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3):		70.052,87
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5):		70.052,87
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:		0,00
8.- 2015eko UFFFaren likidazioa kupoaren itzulketa arriskurako		3.855,63
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):		66.197,24



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	25.323,50
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	0,00
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	29.393,15
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):	54.716,65
14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	0,00
15.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	72.456,73
16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15):	72.456,73

**Bigarrena.-** Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

**Hirugarrena.-** Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

### **LAUGARREN PUNTUA**

### **TOLOSALDEKO ATARIARI 2016 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZA BURUTZEA, HALA BADA**

Ikusirik 2016ko otsailaren 11an egindako Udalbatzarrean, Tolosaldeko Atariak aurkezturiko lankidetzaren hitzarmena onestu zela, non hitzarmen honen babesean Larraulgo Udalak Tolosaldeko Atariari 612,5 eurotako diru-laguntza esleitu dion, 2016 urtean.


Ikusirik, Tolosaldeko Atariak, aipaturiko lankidetzaren hitzarmenaren babesean, Larraulgo Udalak onesturiko 612,5 eurotako diru ekarpena egin dezan eskatzen duen.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Atariari 612,5 eurotako diru-laguntza ematea eta bere ordainketa burutu dadin agintzea, sinatutako Lankidetzaren hitzarmenaren babesean.

BIGARRENA: 612,5 eurotako gastua onestea, 2016 urteko aurrekontu orokorreko 422.334.00.02 partidaren kargura.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### **BOSTGARREN PUNTUA**

#### **AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2016 URTEARI DAGOKION 1. ETA 2. HIRUHILEKO EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA**

Ikusirik 2016ko urtarrilaren 28an Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2016 ekitaldiko 1. eta 2. hiruhilabetean sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Larraulgo Udalak burutu beharreko ekarpena 13.000,00 eurokoa dela adierazten den. Ekarpena, Larraulgo udalak eskatuta, ondoren zehazten den moduan banatzen da:

- Gizarte zerbitzuak: 8.000,00 euro
- Kultura: 5.000,00 euro

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 13.000,00 eurotako ekarpena burutzea 2016 ekitaldiko 1. eta 2. hiruhilabetean sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko. Kontzeptu hauetan banatuta:

- Gizarte zerbitzuak: 8.000,00 euro
- Kultura: 5.000,00 euro

BIGARRENA.- 13.000,00 eurotako gastua onartzea.

### **SEIGARREN PUNTUA**

#### **LARRAULGO UDAL LANGILEEN OPOR EGUTEGIEN ONESPENA, HALA BADA**

Idazkari-Kontuhartzaile andreak Larraulgo udal langileen 2016 ekitaldirako opor egutegiak aurkeztu ditu.


Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: 2016 urterako Udal langileek aurkezturiko opor egutegiak onartzea.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

#### **LARRAULGO LARRUNBIDE ONUZKOA (LABAKANE) BASERRIAREN TEILATUA BERRITZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, HALA BADA**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik A.E. jaunak eginiko eskaera, non Larraulgo Larrunbide Onuzkoa (Labakane) baserriaren teilatua berritzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, Udal Aholkulari Teknikoak, 2016ko martxoaren 29an eginiko txostenean dioena:

### “LARRAULGO LARRUNBIDE ONUZKOA (LABAKANE) BASERRIAREN TEILATUA BERRITZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

A.E.A. jaunak, Larraulgo “Larrunbide Onuzkoa” baserriaren teilatua berritzeko baimena eskatzen du, egin beharreko lanen aurrekontu eta Nekane Guede Herrero arkitektoak sinatutako oinarrizko segurtasun eta osasun azterlan bat aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:**

Aurkeztutako aurrekontuaren arabera, teilatuaren konponketa, gaur eguneko teila ordezkatzeari izango da, teilatua ateratzeko leiho bat egiten delarik. Lan hauen aurrekontua, 13.500€-koa da (BEZ-a gabe).

“Larrunbide Onuzkoa” edo “Labakane” baserria, Larraulgo lur ez hiritargarriaren barruan kokatua dago, D.20 produkzio zonaldean bereziki. Larraulgo arau subsidiarioen Ondareari buruzko “D” dokumentuaren arabera, interes bereziko eraikina bezala katalogatua dago, oinarrizko kontserbazio batekin. Eraikina, 1997ko urriaren 20 ko Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen erabakiaren arabera, **A motako** Balizko Arkeologia guneen zerrendan sartua dago ere(eraikinen hornez barruko esparrua hartzen duena, alegia).

Larraulgo Arau subsidiarioen 48º artikuluan eraikinen kanpo itxuraren baldintzak finkatzen dira, eta 66º artikuluan baserrien zaharberitzearenak.

#### Artículo 48.- Condiciones de tratamiento exterior de las edificaciones.

*-Con carácter general se evitará la utilización de materiales cuyo color, textura y formas de acabado difieran ostensiblemente de los utilizados en las construcciones rurales tradicionales de la zona.*

*-Como material de fachada se utilizará el revoco pintado y la piedra, prohibiéndose expresamente las terminaciones de bloque de hormigón visto y de ladrillo caravista, aunque la utilización de este último material se admitirá siempre que no supere el 25% de la superficie de cada fachada.*


*-Como material de cubierta se utilizará preferentemente la teja cerámica, autorizándose la utilización de otros materiales de coloración y textura similares.*

#### Artículo 66.- Reforma y rehabilitación de los caseríos existentes.

*1.- Como criterio general, en cualquier obra de reforma y rehabilitación de los caseríos se deberán respetar las características fundamentales de los mismos.*

*2.- Obras que afecten a los elementos exteriores.*

*Se realizarán manteniendo el aspecto de terminación exterior del caserío primitivo en la composición de volúmenes, cubiertas, vuelos, huecos de fachada, etc.*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*Se mantendrán todos los elementos arquitectónicos o artísticos como escudos, dinteles, frentes de fachada, etc. de especial valor que el edificio pueda tener.*

Beraz, etxearen bolumena eta kanpo itxura aldatzen ez denez eta eskarian azaltzen diren lanak Larraulgo araudiarekin bat datozenez, obra baimena ematea egokia dela informatzen dut.

\*Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

\*Lanak amaitzean, eraispen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: A.E.A. jaunak eginiko eskaera onestea, hau da, Larraulgo Larrunbide Onuzkoa (Labakane) baserriaren teilatua berritzeko obra baimena ematea, aurkezturiko aurrekontuan eta Nekane Guede Herreko arkitektoak sinatutako oinarrizko segurtasun eta osasun azterlanean jarritakoa jarraituz, eta betiere, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jasotako baldintzak betetzen badira.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri A.E.A. jaunari ematea.

### ZORTZIGARREN PUNTUA


**LANKIDETZA HITZARMENA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO GOBERNANTZAKO ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOKO DEPARTAMENTUAREN ETA LARRAULGO UDALAREN ARTEKOA, HALA BADA**

Ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantzako eta Gizartearekiko komunikazioko departamentutik igorritako idatzia, non gardentasuna bilatzen eta Herritarren partaidetza bultzatzeko asmoz, beharrezkoa ikusten dutela, Foru Aldundiko aipaturiko departamentuak eta Larraulgo Udalak lankidetza hitzarmena sinatzea, hain zuzen ere, udal erroldaren datuak egiaztatzeko.

Ikusirik, Larraulgo Udala interesatuta agertzen dela aipaturiko lankidetza hitzarmena sinatzeko.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENA: Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantzako eta Gizartearekiko komunikazioko departamentuak eta Larraulgo Udalaren arteko Lankidetza hitzarmena onestea, udal eroldaren datuak egiaztatzeko.

BIGARRENA: Aneli Urbietta Etxeberria, Larraulgo Udaleko Alkate-Lehendakari andreari aipaturiko hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko departamentuari ematea.

### **BEDERATZIGARREN PUNTUA**

### **OLAEDERRA KIROLDEGIA ERABILTZEKO LARRAUL, ZIZURKIL ETA VILLABONAKO UDALEN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik Larraulgo Udalak, Villabonako Udaleko Alkate-Lehendakari jaunari eginiko eskaera, non 2016 urtarrilaren 1etik urtetik aurrera, Olaederra Kiroldedia erabiltzeko, 1999an sinatu zen hitzarmenarekin jarraitzeko eskaera egin ziola.

*Ikusirik, Villabonako Udalbatzak, 2016ko martxoaren 21ean eginiko osoko bilkuran, ondorengo erabakia hartu zuela:*

- 1.-Onartzea, Larraulgo Udalak eginiko eskaria Olaederra kiroldedia erabiltzeko hitzarmena berresteari dagokiona.*
- 2.-Onartzea, Larraul, Villabona eta Zizurkilgo Udalek, Olaederra kiroldedia erabiltzeko, 2016ko urtarrilaren 1eko indarraldiarekin sinatuko duten hitzarmena.*
- 3.-Akordio hau Larraul eta Zizurkilgo Udalei, eta Kirolzer S.L. enpresari jakinaraztea.*

Ikusirik, Villabonako Udalak Olaederra kiroldedia erabiltzeko Larraul, Zizurkil eta Villabonako udalen arteko lankidetza hitzarmenaren zirriborroa igorri duela.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo


### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Onartzea, Larraul, Villabona eta Zizurkilgo Udalek, Olaederra Kiroldedia erabiltzeko, 2016 ko urtarrilaren 1eko indarraldiarekin sinatuko den hitzarmena.

BIGARRENA: Aneli Urbietta Etxeberria, Larraulgo Udaleko Alkate-Lehendakari andrea ahalmentzea aipaturiko lankidetza hitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Villabona eta Zizurkilgo Udalei eta Kirolzer S.L. enpresari ematea.





## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)


### HAMARGARREN PUNTUA FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	4.323,40
LIDOINSA	710,00
ALKIZAKO UDALA	595,12
EBA ERKIZIA	732,73
TOLOMENDI	152,50
BULEGOAK	104,52
KIROLZER	50,85
KOLDO JAUREGI	245,03
BABESA SUZAI	186,34
FERRETERIA BARBE	45,92
BERRI LANTEGIA	14,50
AITZOL	48,72
AITZOL	48,72
CORREOS	1,27
QUIMUNSA	89,24
JOXAN ALTUNA	390,76
KIROLZER	49,90
EBA ERKIZIA	1.052,72
EUGENIO LOIDI	221,55
GAS NATURAL FENOSA	171,28
GAS NATURAL FENOSA	38,05
REPSOL	165,54
REPSOL	369,33
IBERDROLA	209,86
IBERDROLA	219,09
IBERDROLA	30,77
IBERDROLA	213,23
MOVISTAR	132,45
MOVISTAR	53,12
MOVISTAR	19,08
MOVISTAR	18,33
MOVISTAR	50,81

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengo,

ERABAKITZEN DU



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **10.754,73** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

### **HAMAİKAGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

#### **11.1. LARRAULGO ESKOLAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA, IGERILEKUKO IKASTAROETARAKO**

Ikusirik Larraulgo eskolak eginiko eskaera, non ondorengoa dioen:

*“Larraulgo Udalak eta Guraso Elkarteak adostua dugunez, eskolako haurrek egiten duten igerilekuko ikastaroaren zati bat Udalak finantzatuko du: hain zuzen, kiroldegiko kostuaren erdia.*

*2015/2016 ikasturteari dagokionez, igeriketa ikastaroa Larraulgo eskolako 7 haurrek egin dute.*

*Kiroldegiko gastua 28,46€koa izan da umeko.*

*Zazpi ikasleei zegokien gastua 199,22€koa izan da, beraz.*

*Udalari gastu horren erdia dagokio ordaintzea: 99,61€ guztira.”*

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### **ERABAKITZEN DU:**


LEHENA: Larraulgo Murgil Guraso Elkarteari 99,61€ euro ordaintzea, 2015/2016 ikasturteko igerilekuko ikastaroaren gastua finantzatzen laguntzeko.

BIGARRENA: 99,61 eurotako gastua onestea.

### **HAMABIGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

#### **12.1. “TOLOSALDEA TABAKORIK ETA ZIGARRO-KERIK GABE” PROGRAMARI ATXIKIMENDUA**

Ondoren Tolosa-Goierriko Osasun Publikoko arduradunak igorritako idatzia aztertzen da, non ondorengoa dioen:



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*“Martxoak Iean Lehiberrin bilera izan genuen Tolosaldea Udalerrietako ordezkariekin eta “Tolosaldea tabako-kerik eta zigarro-kerik gabe” ekimena aurkeztu zen. Bertan erabaki zen programa honi atxikimendua ematea.”.*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, Tolosaldea tabako-kerik eta zigarro-kerik gabe ekimenari atxikimendua ematea erabakitzen du.

### **12.2. IGELDOKO ITXAS AURRE ELKARTEA-k AURKEZTURIKO IDATZIAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik Igeldoko Itxas Aurre ElkarTEak aurkezturiko HERRI TXIKI, ALTXOR HANDI idatzia, non idatzi honi atxikimendua eskatzen duten.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, gaia mahai gainean uztea erabakitzen dute.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.00 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA